



---

## FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila  
Zerga Araudiaren Zerbitzua  
Esp. zk.: 2/2019

**Autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioen onarpena, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.**

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 13.4.b) artikulua eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 31.1 artikulua hauxe adierazten dute:

“Ibilgailu automobilak, itsasontziak eta aireontziak Arabako Foru Aldundiak horretarako ezarriko dituen arauari jarraituz balioetsiko dira”.

Bestalde, otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintza Dekretuaren, zerga bereziak arautzen dituenaren, 74.b) artikulua, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren zerga oinarria arautzen duen hirugarren paragrafoan, honako hau esaten du: “subjektu pasiboek, merkatuko balioa zehaztu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiak onartu dituen batez besteko salmenta prezioak (zergaren sortzapen unean indarrean daudenak) erabili ahal izango dituzte”.

Zenbait foru dekreturen bidez –zein bere denbora esparruan-, ibilgailuen eta itsasontzien batez besteko prezioen taulak onartu izan dira. Prezio horiek kontuan hartu beharrekoak dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan eta zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian.

Foru dekretu honen bidez, ibilgailuen eta itsasontzien batez besteko prezioak ezarri nahi dira. Aireontziei dagokienez, ez da aldaketarik egon, hots, ez da batez besteko preziorik behar, ez baitago erabilitako aireontzien merkaturik. Egiten diren eragiketak bakanak izanik, administrazioa banakako balioespena egiteko moduan dago.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

**XEDATZEN DUT**



**1. artikulua.** Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko prezioak ezartzen dituen apirilaren 13ko 18/2018 Foru Dekretuaren I., II., III., IV. eranskinetan jasotzen diren taulen ordez, foru dekretu honen I., II., III. eta IV. eranskinetan jasotzen direnak erabiliko dira helburu guztietarako.

**2. artikulua.** Foru dekretu honek onartzen dituen batez besteko salmenta prezioak egiaztapenak egiteko erabili ahal izango dira, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.

**3. artikulua.** Jadanik matrikulatuta dauden automobil, lur orotako ibilgailu eta motorren balioa zehazteko, ezarri beharreko ehunekoak, zeinak foru dekretu honen IV. eranskinetako taulan eta instrukzioetan agertzen baitira, ezarriko zaizkie foru dekretu honen I. eranskinean agertzen diren batez besteko prezioei, kontuan izanda ibilgailua zenbat urte erabili den, eta, hala badagokio, zer jarduera izan duen.

**4. artikulua.** Laketontzi eta itsas motorren balioa zehazteko, alde batetik, ontzia bera -motorrik gabe-, eta, bestetik, motorra balioetsiko dira. Horretarako, foru dekretu honen II. eta III. eranskinetako balioak erabiliko dira eta haiei III. eranskinetako taularen ehunekoak ezarriko zaizkie kontuan izanda zenbat urte erabili diren; ondoren, itsasontziaren balio osoa zehazteko eguneratutako balio guztiak batuko dira.

**5. artikulua.** Balioa zehazteko arau berezia, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.

Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa. Ezarri beharreko ehunekoak, zeinak foru dekretu honen IV. eranskinetako taulan eta instrukzioetan agertzen baitira, ezarriko zaizkie foru dekretu honen I. II. eta III. eranskinetan agertzen diren batez besteko prezioei, kontuan izanda ibilgailua zenbat urte erabili den, eta, hala badagokio, zer jarduera izan duen.

Bigarrena. Lehen adierazitako lehenengo araua kontuan hartuta kalkulaturiko merkatu balioari zeharkako zergen kuoten hondar balioa kenduko zaio. Horretarako, honako formula hau erabili ahal izango da:

$$BI = \frac{VM}{1 + (tipO_{IVA} + tipO_{IEDMT} + tipOS_{OTROS})}$$

Azalpena:

ZO: zerga oinarria da; hau da, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziko garraiobide erabilien zerga oinarria.

MB: merkatu balioa da, IV. eranskinetako ehunekoak aplikatu ondoren batez besteko prezioen tauletan zehaztutakoa.



BEZ tasa: garraiobidea lehenengo aldiz benetan matrikulatzen den unean balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) indarreko zerga tasa da, bateko hainbestean; edota BEZa aplikatuko den lurraldean, garraiobide hori matrikulatu beharrekoan, eska zitekeen zerga tasa, baldin eta lehenengo aldiz egin zen matrikulazioa atzerrian egin bazen.

ZGZB tasa: garraiobidea lehenengo aldiz benetan matrikulatu zen unean eta lurralde eremuan indarrean zegoen zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren zerga tasa da, bateko hainbestean, matrikulazio hori Espainian egin bazen; edo bestela, garraiobidea orain Espainian matrikulatuko den lurralde eremuan eta lehenengo matrikulazioan eska zitekeen zerga tasa da, garraiobide hori lehenengo aldiz benetan atzerrian matrikulatu bazen.

Bestelako tasak: garraiobide hori eskuratzegatik zergak kargatu dituen bestelako edozein zeharkako zergaren zerga tasak batzearen emaitza da, bateko hainbestean, baldin eta merkatu balioan sartuta badaude.

## **AZKEN XEDAPENA**

ALHAOn argitaratzen denetik hamar egun igaro eta gero jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz,

### **Ramiro González Vicente**

Diputatu nagusia  
Diputado General

### **José Luis Cimiano Ruiz**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu  
Saileko foru diputatua  
Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y  
Presupuestos

### **Teresa Viguri Martínez**

Ogasun zuzendaria  
Directora de Hacienda